



ALDEZ AURREKO KONTSULTA FORU DEKRETU PROIEKTUAZ, HAIN ZUZEN, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO MAHASTIEN ERREGISTROAREN ARAUDI ERREGULATZAILEA FINKATZEN DUENA

Bat etorritz xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuaz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) arauaren helburuak
- d) egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroa arautzeko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2020ko otsailaren 22ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroa arautzeko araudia finkatzea.
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Arabako Mahastien Erregistroa arautzen duen araudia finkatzea, Europako araudiari egokitua. - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1308/2013 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez nekazaritza-merkatuen antolakunde erkidea sortzen baita eta sistema berria finkatu mahastien kudeaketarako baimenetan oinarrituta.

	<ul style="list-style-type: none"> - Batzordearen abenduaren 15eko 2015/560 (EB) Erregelamendu eskuordetua, zeinak aurrekoa osatzen duen, mahastien landaketen erregimenari dagokionez. - Batzordearen apirilaren 7ko 2015/561 Betearazpen Arautegia, 1308/2013 Erregelamendua (EB) aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena. <p>Baliogabetzea gaur egun indarrean dagoen foru araudia.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 109/1998 Foru Dekretua, zeinaren bidez onartzen baita zein araudiri egokitu behar zaizkion eragiketak Foru Aldundiaren Mahastien Erregistroko edozein atal guztiz edo partez aldatzea badakarte. - Diputatuen Kontseiluaren urriaren 8ko 51/2002 Foru Dekretua, Mahastiak landatzeari eta birlandatzeari, mahasti landaketako eskubideen erreserbari eta Arabako Mahastien Erregistroari buruzko arauak ezartzen dituena.
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Nahitaezkoa da Arabako Mahastien Erregistroa arautzen duen araudia izatea, Europako araudiari egokitua.
HELBURUAK	Mahastien Erregistroa izatea, horren arautzea gaurkotua eta Europako araudiari egokitua, eta baliogabetzea gaur egun indarrean dagoen araudi zaharkitua.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Ez dago ordezkoko konponbiderik